

## AURKEZPENA

Pasa den mendeko laurogeita hamargarren hamarkadatik aurrera, Korporazioen Erantzukizun Sozialak etengabeko hedapena ezagutu du eta enpresa multinazionalentzako jokaera eredu berria bilakatu da, erakundearen famak iritzi publikoan gehien eragiten duten produkzio sektoreetan, bereziki. Korporazioen Erantzukizun Sozialaren ezaugarri da autorregulazioaren eta borondatezko ekimenen enfasia, eta enpresen etika aldatzea beharrezkoa dela dioen diskurtsorantz jotzen duten aktoreen aniztasunak bultzatu du: ahalmen publikoak, ordezkari patronalak, nazioarteko instantzia politikoak, gobernuz kanpoko erakundeak eta sindikatuak.

Milton Friedman pentsamendu neoliberalaren aitzindariak bere garaian esan zuen «enpresaren erantzukizun bakarra bere irabaziak areagotzea dela», akzioedunek dibidendu handiagoak jasotzeko, muga bakarra legearen betearazpena izanik; nazioarteko erakundearen artean nagusitu den jarrerak erabaki du «irudiaren inguruko gogoetak eta fama funtsezkoak direla eta areagotu egin direla enpresen arteko giro lehiakorrean».

Lan Harremanen monografiko hau hautatu da kontuan hartuz eredu hori orokortu dela eta enpresa multinazionalen lan, ingurumen eta giza betebeharrak jasotzen dituen arautegiaren kontra dagoela. Artikulu gehienak ikuspuntu alternatibo batean oinarritzen dira; enpresa, gobernu eta baita inguru akademikoetan ere gehien hedatzen denaren ez bezalako ikuspuntuan, hain zuzen.

Juan Hernándezen artikulua tesia Merkataritza Eskubide Globalaren indarra neutralizatzeko ezintasun juridikoari eta politikoari buruzkoa da; eskubide horrek enpresa transnazionalen interesak babesten ditu, barne jokabideen kodeetan adierazitako erregulazio sistema pribatuekin. Horretarako, enpresa transnazionalen «praktika onak» izena dutenak aztertzen ditu, Merkataritza Zuzenbide Orokorren indarra neutralizatzeko ezintasun juridikoari eta politikoari dago-kionez; izan ere, Merkataritza Zuzenbide Orokorren enpresa transnazionalen interesak babesten ditu, barne jokabideen kodeetan adierazitako erregulazio sistema pribatuekin. Merkataritza Zuzenbide Orokorren zurruntasunaren eta sistema boluntarioen izaera «bigunaren» arteko aurkaritza azaldu daiteke oinarri hartuta enpresa transnazionalen eta gehiengo sozialen arteko botere harremanak.

Koldo Uncetak aztertu ditu gaur eguneko gizarteak mehatxatzen dituzten arriskuak aztertzeko gehien erabiltzen diren ikuspuntuak; horretarako, ikuspuntu horiek eta herrialde-arriskuen ikuspuntuek aintzat hartutako arrisku faktoreak alderatzen ditu. Herrialde-arrisku kontzeptuak mende osoan iraun duen arren, azken urteetan berreskuratu da, garapen bidean dauden herrialdeetan, bereziki. Artikuluak adierazten du kontzeptu horrek arrisku orokorren testuinguru berria murriztapenak dituela eta beharrezkoa dela pertsonengan oinarritutako ikuspuntua izatea. Agnes Giner-en lanaren helburua enpresen eta giza-eskubideen artean dauden harremanak azterzea da; borondatezko jarrera kodeetan oinarritzen da, bereziki, baita «beharrezko enpresa diligenzia» kontzeptuan ere. Kontzeptu hori jarrera etikoko adierazleak eskaintzeko barneratu zen, eta baita giza-eskubideak hausten zituzten enpresen kidesasuna saihesteko ere; azken horren kategoria eta maila juridiko eta ez-juridikoak aztertu dituzte.

Mikel Berraondok erauzketa enpresen eta herri indigenen arteko harremanak ikertu ditu. Enpresak komunitate indigenen diskriminazio eta baztertzeko prozesuekin nola bizi diren zehaztu eta gero, ondorioztatu du enpresek ez dituztela betetzen Korporazioen Erantzukizun Sozialak eskatzen dituen premisak; halaber, Korporazioen Erantzukizun Sozialeko programek herri indigenei dagokienez barne hartu beharreko proposamenak azaldu zituen, enpresa espainiarrek, batez ere. Amparo Merinoren artikulua enpresen barnean genero berdintasuna areagotzeko erantzukizun sozialeko politiketan eta programetan oinarritzen da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege espainiarraren bitartez; lege horren VII. Izenburua Korporazioen Erantzukizun Sozialeko berdintasunari buruzkoa da. Azpimarratzen du gaiari buruz ez dagoela herri politika nahikorik eta Erakundearen Erantzukizun Sozialeko eredu koherentea falta dela.

Iñaki Barcenak eta Rosa Lagok agente sozial ezberdinek erabilitako bi kontzeptuen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak aztertu dituzte, krisi sozio-ekologikoari aurre egiteko, enpresa transnazionalen Korporazioen Erantzukizun Soziala eta zor ekonomikoa mugimendu sozialak— ekologistak eta feministak, indigenak eta baserritarrak, sindikalistak eta internazionalistak—, direla-eta; kontzeptuak, bere egileen arabera, globalizazio kapitalistaren eredia barne hartzen, azaltzen eta erantzuten du eta zuzentasuna nahiz ekologia barne hartzen ditu; halaber, sistema menderatzailea barne hartzen du modu geografikoan, zeharka, belaunaldien artean eta diziplina anitzean. Isidor Boix-en artikulua Korporazioen Erantzukizun Sozialak munduko gobernuan duen zeregina azaltzen du, baita, bere ustez, Korporazioen Erantzukizun Sozialaren eremuan sindikatuen lanerako Nazioarteko Akordio Markoek jaso beharreko lehentasuna ere; hala, sindikatuen Korporazioen Erantzukizun Sozialaren eremuan egin behar dutena hartzen du oinarritzat, adibide hartuta, besteak beste, Ehun- larru industriaren federazioa, industria kimikoa eta Comisiones Obrerasen aldekoak.

Hurrengo bi artikulua enpresen eta sektoreen kasu jakinen azterketari buruzkoak dira. Cristina Sáezek, Mikel Barbak eta Jorge Lagok kontraesanak az-

tertu dituzte, Euskal eremuko bi enpresa multinazional nagusiek duten nazioarteko jarduera Korporazioen Erantzukizun Sozialaren eremuan: BBVA eta Iberdrola; bestelakoa erakusten dute Korporazioen Erantzukizun Sozialaren txostenak eta enpresek lan, ingurumen eta gizarte arloan duten praktikak. Alejandro Pulidok eta Pedro Ramirok Kolonbian dauden multinazional espainiarren Korporazioen Erantzukizun Sozialaren ekimen garrantzitsuenak aztertzen dituzte eta jasotzen dute zein modutara Korporazioen Erantzukizun Sozialaren bertsioak transnazionalen sektore interes aniztasunaren mende dauden, eta baita ere beren jarreraren giza pertzepzio anitzaren mende, beren jarduera aurrera eramaten duten tokiaren arabera. El Salvadorreko Monitoreo Talde Independienteak El Salvadorren eta Hondurasen hainbat kasuen azterketa laburtzen du, oinarri hartuta mugen ezaguera eta merkatua eta publiko kontsumitzailea politizatzeak ahaleginak, Erdialdeko Amerikan lan egiten dutenentzako baldintza justuagoak sortze aldera. Erika Gonzálezek y Jesús Carriónnek aztertu dute zein den Unión Fenosak Nicaraguan, Kolonbian eta Latinoamerikan duen Korporazioen Erantzukizun Sozialaren politika, Latinoamerikako herrialdeek beren jardueraren lan, ingurumen eta giza eraginen inguruko kritikei eta mugikortasunei erantzute aldera. Amaitzeko, Antonio Rodríguez Carmonaren artikulua Repsol YPF enpresak Bolivian duen Korporazioen Erantzukizun Sozialaren praktikak aztertzen ditu, herrialdeko baliabide naturalen nazionalizazio prozesuaren errealitateak kontra egiten diolarik konpainiaren erantzukizun sozialeko diskurtsoari eta horren inguruan bete gabe dituen konpromisoari.

Ale honen jatorria Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Paz y Dignidad Erakundearen artean sinatutako hitzarmena da; hitzarmenaren helburua da, besteak beste, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak garatzen dituen presetakuntza eta ikerkuntza jarduerak sustatzea; izan ere, Behatokiaren babesean argitaratu da, 2009. urte honetan bertan, ale honen antzeko gaia duen monografia (*El negocio de la responsabilidad. Crítica de la Responsabilidad Social Corporativa de las empresas transnacionales*, Icaria). Ale horren koordinatzaileak izan dira honako hauek: Juan Hernández UPV/EHUko irakaslea eta Pedro Ramiro, Paz con Dignidad-OMALEko ikertzailea.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN  
*Lan Harremanak*-eko zuzendaria